



Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko ekainaren 26an** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA  
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezeko idazkaria.  
Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

### 1.-AURREKO AKTEN ONARPENA

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2018ko maiatzaren 29ko ohiko batzarreko aktan, ekainaren 13ko aparteko aktan, eta ekainaren 18ko aparteko aktan, ia norbaitek aldaketaren bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez aktak onartzea erabaki du.

### 2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK

Alkateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu, onartuak izan daitezen

#### GASTUAK

Ordaindu beharrak, helbideratu gabeak

ANSA JANARIDENDA. Aterpeko garbiketa produktuak	13,83€
COMERCIAL CAMPOS. Xagu eta arratoi en pozoia	184,22 €
IZKIÑA JATETXEA. Kontseilariarekin egindako bilera ondorengo tortilak	18,00 €
AMAIA UITZI. Kontseilariarekin egindako bilera ondorengo ogik eta pastak	6,20 €
XIMON HARATEGIA. Kontseilariarekin egindako bilera ondorengo gaia	12,43 €
UMORE-ONA ELKARTEA. Goizutraileko hamaiketakoak	597,75 €
BIDANE HUICI ANTON. Aterpeko garbiketa lanak, apirila eta maiatzakoak	345,00 €
KOPY LEKU. Maiatzako mantenimentua	287,54 €
LYRECO. Bulego materiala	321,51 €
LYRECO. Eskolako komoneko papera	31,56 €
SULAN. Aterpeko extintoreen eta alarmaren rebisioa	335,81 €
SULAN. Udal eraikinetako extintoreen rebisioa	337,71 €
SULAN. Suhiltzaileen lokaleko extintoreen rebisioa	176,74 €
RICARDO GALDEANO. Udala eta kontsultako gasoila	124,00 €
BPXPORT kirol zerbitzuak. Maiatzako jumpfit eta pilates saioak	1.256,56 €
MENDITXURI. Langileen arropa, plazako zolua moldatzeko materiala	280,28 €
GESERLOCAL. Maiatzako kontabilitate aholkularitza	538,44 €
ITZULIZ ITZULPEN ZERBITZUA. Webguneko testuen itzulpena	214,41 €
MARI JOSE NARBARTE. Erregistro zibileko ikastaroko kilometrajea	49,35 €
MIRIAM AROCENA. Kilometrajea	143,08 €
CORREOS. Maiatzako faktura	50,12 €
MENDITXURI. Udalako materiala, zerran orrik, tirafondok...	46,32 €
CEFERINO APECECHEA ETA SEMEAK. Mendiko Land Roverraren konponketak	252,16 €
ZUDAIRE ABOGADOS SLP. Lubineko frontoieko erantzukizunen aurreratzea	3.630,00 €



Ordaindu beharreko gastuak: 9.253,02€

1	<b>BIDANE HUICI ANTON.</b> Xalto eskolaren garbiketa lanak, maiatzakoa	1.576,12 €
2	<b>MARISOL APEZETXEA.</b> Udal eraikinen garbiketa lanak, maiatzakoa	882,04 €
3	<b>OIHANA INSAUSTI.</b> Eskulanak ikastaroaren maiatzako faktura.	356,25 €
4	<b>ORTIZ DE ELGUEA.</b> maiatzako faktura	147,80 €
5	<b>CODE.</b> Wifi-ren instalazioa	423,50 €
6	<b>GOIZUKOOP.</b> Suhiltzaileen ibilgailuen gasoila	56,98 €
7	<b>CEFERINO APEZETXEA.</b> Mendiko Land Roverraren konponketa	601,14 €
8	<b>PIROTECNIA ZARAGOZANA.</b> Festatako itxaferoak, traka	266,94 €
9	<b>NUKF.</b> Kuota	245,79 €
10	<b>GIZARTE SEGURANTZA.</b> Apirilako gizarte segurantzak	3.424,85 €
11	<b>GOIENER.</b> 2018/05/24tik 2018/06/21era	2.125,08 €
12	<b>VODAFONE.</b> 2018/05/24tik 2018/06/21era	585,36 €
13	<b>MOVISTAR.</b> 2018/05/24tik 2018/06/21era	317,39 €

Helbideratutako gastuak: 11.009,24€

**Gastuak guztira: 20.262,26€**

Udalbatzak gastuak aztertu ondoren helbideratu gabeko fakturak ordaintzea, salbu Zudaire Abogados SLP-ren faktura, eta helbideratuak onartzea erabaki du aho batez

Ondoren, Alkateak, diru sarreraren berri eman du

**DIRUSARRERAK**

<b>ERRENTAK.</b> Udal eraikinen errenta, ekainakoa	225,49 €
<b>ZERGADUNAK.</b> Ibilgailuen gaineko zerga. Helbideratu gabeak	505,21 €
<b>ZERGADUNAK.</b> 2017-2018 ikastaroen 2. zatia	3.939,65 €
<b>ZERGADUNAK.</b> Tasak	0,80 €
<b>ZERGADUNAK.</b> Goizuetako mapak	63,00 €
<b>ZERGADUNAK.</b> IAE helbideratu gabeak	45,40 €
<b>ZERGADUNAK.</b> Obra, eraikuntza eta instalazio gaineko zerga.	119,25 €
<b>INE.</b> Hilabeteroko zentsoa eguneratze lanak	21,50 €
<b>NAFARROAKO GOBERNUA.</b> Telefonica. 2017ko likidazioa eta 1. hiruhilabe.	660,97 €
<b>GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.</b> Lokalaren garbiketa	874,75 €
<b>KIMUAK AISIALDIA.</b> Frontoia erabiltzeagatik ordaindutako tasa,2016-2017	196,00 €
<b>HERRIKROSA.</b> Goizuetraileko inskripzioak	3.246,00 €
<b>MAPFRE.</b> Mendialdeko kamioiak apurtutako farolaren likidazioa	646,32 €
<b>ZUBIMUXU.</b> Maiatzako egonaldiak.	557,00 €
<b>ZUBIMUXU.</b> Martxoko egonaldiak. Euskaraz kooperatiba	572,00 €

**Guztira dirusarrerak: 11.673,34€**

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta onartu egin ditu aho batez



### **3.-INFORMAZIOA**

#### **3.1.GARAPEN AGENTEA.**

Elena Irigoien Garapen Agenteak, Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailearen gainean (iparraldeko eramua), ekainaren 21ean, Donezteben, Malerrekako Mankomunitatean ospatuko den jardunaldi beten berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

#### **3.2.NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA**

NUKF-tik, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak prestatutako gidaliburu bat helarazi da, [https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Igualdad+de+genero/Publicaciones/](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Igualdad+de+genero/Publicaciones/) esteka bidez, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzen duten tokiko protokoloak prestatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **3.3.ABELZAINZA ZERBITZUA**

Abelzaintza Zerbitzutik jakinarazi da, datorren urriaren 1etik aurrera, ezabatu egingo direla, abereak trasladatzeko giak. Aldi berean “oficina virtual ganadera” delakoa izango dute abelzainek, dagokion izapidetzak internet bidez egiteko. Horretarako ekainaren 29an ikastaro saio bat deitu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **3.4.KULTURA, KIROL ETA GAZTARIAREN DEPARTAMENTUA.**

2018.urtea Kultur Ondarearen Urte Europearra dena eta , irailaren 28.29 eta 30ean, “El Arte de Compartir” goiburuean, kultur ondarearen bitartez gure herriek Europako beste lurralde batzuekin duten lotura sakontzeko, udalak interesko ulertzen dituen proposamenak egin ditzazkela jakinarazi da, uztailaren 31 arteko epea ematen delarik.

Udalbatzak jakinaren gainean gelditu da.

#### **3.5.MENDIALDEA MANKOMUNITATEA.**

Mendialdea Mankomunitateak batzar orokorrerako deialdia egin zuen, ekainaren 13rako, arratsaldeko 18.00tan, Leitzako Udaletxean

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

#### **3.6.LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Lurralde eta Paisaiaren Zerbitzua**

Lurralde eta Paisaiaren Zerbitzuak jakinarazi du, 10 eguneko epean ez bada aurkezten, Luis Zugarramurdi Aizpuruk sustatu duen Alduntzinbordako Teilatuaren berritze obraren gainean errekeritu zitzaion dokumentazioa, espedientea kadukatua deklaratzeko prozedura izapidetuko dela

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.



### 3.7.ESKUBIDE SOZIALETAKO DEPARTAMENTUA. Etxebizitza Zerbitzua

Etxebizitza Zerbitzutik jakinarazi da, Hospitala Eraikiaren birgaitze obrarako Goizuetako Udalak 2014an eskatutako diru-laguntzen 3 espediente artxibatu egin direla, babestutako birgaitze obra hauen behin behineko kalifikazio lortu ondoren, behin betikoa lortzeko epea pasa delako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.8.NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA

NUKF-tik ondorengo informazioa jaso da:

-Kontratu lege berriaren arabera, prozedura ireki bidez kontratatzeko plegu modelo bat prestatu du

-Errefuxiatuarentzako udal laguntza koordinatzeko bulegoaren posta elektronikoa zein den, udalak dauzkaten baliabideak jakinarazteko

-Ekainaren 22an ospatu zen Batzar Nagusi Berezirako deialdia

-Ekainaren 5ean ospatu zen batzorde betearazlearen gaineko informazioa.

-ANAS (Asociacion Navarra de Amigos del Sáhara) Elkarateak eskatuta, haur saharauei harrera emateko sustatu den “Talde babes Hartzea-Oporrak Bakean 2018” programaren berri, eta nola parte hartu daitekeen

-Toki Entitateen SITNA-ren bigarren foroaren deialdiari buruzko informazioa

-EKOLAE programa pilotoaren gainean ekainaren 14an egin zen bilera informatiborako deialdia

-Lizitazio Elektronikoaren Plataforman iragarkiak argitaratzeari buruzko informazioa

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.9.GOIZUETA/ARANOKO PEDIATRA ZERBITZUAREN EGOERA

Goizueta eta Aranoko bizilagunek sinatutako idatzi bat aurkeztu da Goizuetako Udalean, bi herrietako pediatria zerbitzuaren egoera salatzen duena, non adierazten den, bi herriak pediatria zerbitzu gabe gelditu diren, eta Leitzako zerbitzua ere bertan behera gelditu dela. Oinarritzko pediatria zerbitzua jartzeko eskatzen da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.10.OSASUN KONTSEILUA

Osasun Kontseilurako deialdia egin zen ekainaren 19rako, arratsaldeko 16.30tan, Leitzako Batzar Aretoan. Tratututako gaiak, Pediatria Zerbitzua, Goizuetako Mediku plazaren larritasuna, Eskualdeko anbulantzi zerbitzua eta Gizarte Langilea.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.



### 3.11.TURISMOKO ETA MERKATARITZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Zuzendaritza Nagusitik, ekainaren 29an, Iruñen ospatuko den Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legearen gaineko bilera informatiborako deialdia egin da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.12.HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. Obren Atala

Obren Ataletik, 2018ko ekainaren 14ko 400 zenbakidun Ebazpenaren jaso da. Ebazpen honen bidez, ebatzi egiten dira, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eskolatan obrak egiteko diru eskaerak. Goizueta Udalak Xalto eskolako jolas parkea eta argiteria berritzeko diru-laguntza eskatu zuen, eta ezeztu egin zaio.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.13.-NAFAR LANSARE

Nafar Lansaretik, interes orokor eta sozialerako lanak egiteko langabetuak kontratatzekeo deialdiaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.14.-INGURUMENENKO ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDUKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. Toki Agenden eta Lankidetzaren Bulegoa.

Industria Departamentutik, energiari buruzko hainbat ikastaroen berri eman da, batzuk toki entitateekin erlazio zuzena dutena.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.15.-EKILAN SL

Ekilan SL.-tik, Toki Entitateek basolanak egiteko diru-laguntza deialdiaren berri jaso da. Ekainaren 7an argitaratu da deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.16.-IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Iparraldeko Euskara Mankomunitate Batzar Orokorrerako deialdia egin zuen , ekainaren 11rako, arratsaldeko 18.00tan, Lekunberriko Udaletxean

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### 3.17.-UDALBILTZA

Udalbiltzatik Ohiko Kontseilu Nagusirako deialdia egin zen, ekainaren 15erako, arratsaldeko 17.00tan, Oiartzungo Udalean.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.



### 3.18.CEDERNA GARALUR

Mendialdea Garapen Agentziaren bilera deialdia egin zen ekainaren 12ako, goizeko 10.tan, Lekunberriko Udaletxean.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### 3.19.HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua

Baliabide Ekonomikoen Zerbitzuak, 2018ko maiatzaren 31ko 366 zenbakidun ebazpena jakinarazi du. Ebazpen honen bidez, Goizueta Udalaren alde 8.343,04€tako diru-laguntza onartu du, 2014 eta 2015 urteei dagokio, beste herrietako umeak dituzten eskola burua izateagatik sortzen diren gastu orokorrak finantzatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.20.-ARKAMENDI ZURDINDEGIA

Arkamendi Zurdintegiak udalak eskatuta, Dantzatako Lokalaren berritze obra lanak egiteko aurrekontua aurkeztu du, 14.609,14€koa (Bez-a barne). Obra lan hauek besteen artean, leihoak berritu, komona berritu, margotu, atak, tetxua.....)

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.21.-GOIENER

Goienertik ekainaren 9rako, goizeko 9.30tan Ohiko Batzar Nagusirako deialdia egin zuen, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### 3.22.-LEITZA-GOIZUETA-ARESO ETA ARANOKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA. Berdintasun Batzordea

Berdintasun Batzordeak bilera deialdia egin zuen ekainaren 4rako, arratsaldeko 18.00tan Goizueta Udalean.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### 3.23.-KANTAUURIKO UR KONFEDERAZIOA.

Kantauriko Ur Konfederaziotik Udalari errekeritzen zaio, Bekolanda poligonoan, pilotuta dauden mota desberdinetako hondakinen garbiketa egiteko, errekarekiko arriskua suposatzen duelako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### 3.24.-EUSKARABIDEA

Euskarabideatik, maiatzaren 21eko 29E/2018 Ebazpena jaso da, udal esparruan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2018ko laguntzak ebatzen dituen. Goizueta Udalaren alde



2.795,20€tako diru-laguntza onartu du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **4.-ESKAERAK**

##### **4.1.XABIER TABERNA MAKAZAGA. Modifikazio Katastrala 8 poligonoko 18 partzela eta 4 poligonoko 224 partzelaren zatia.**

Xabier Taberna Makazagak, Alduncingo-Arriaundia parajeko iralekua ( 8 poligonoko 18 partzela eta 4 poligonoko 224 partzelaren zati bat), katastroan Francisca Macazaga Goizueta izenean jartzeko eskatu zuen.

Goizuetako Udalak, dagokion txostena eskatu zuen Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko, Herrilurren Atalean.

Herrilurren Atalak, 2018ko martxoan dagokion txostena egin du. Txostenaren arabera, Alduncingo-Arriaundia parajeko iralekua, herri lurra da, partikularrak aprobetxamendu eskubidea bakarrik, eta ondorioz eskatutako katastro modifikazioa ezinezkoa dela dio.

Txostenak honela dio:

*Con fecha 17 de julio de 2012 tuvo entrada en la Sección de Comunales una instancia presentada por el Ayuntamiento de Goizueta solicitando el informe preceptivo a la inclusión en catastro de un helechal en el paraje Alduncingo-Arriaundia.*

*Xabier Taberna Makazaga solicita se incluya en catastro, a nombre de Francisca Macazaga Goizueta la parcela 18 del polígono 8 y parte de la parcela 224 del polígono 4.*

#### **INFORME**

*La parcela 18 del polígono 8 y la parcela 224 del polígono 4 figuran actualmente en catastro a nombre de Comunal, se corresponden con la parte de la parcela 57 del polígono 10 del catastro anterior, también a nombre de Comunal.*

*En la escritura de Compra-Venta entre don Secundino Macazaga Arocena y doña Francisca Macazaga Goizueta, otorgada en fecha 3 de octubre de 1952 ante el notario de Lekunberri, don Valentín Pueyo Bonet, nº 518 de protocolo, se describe: "1.- Un helechal en ALDUNCINGO-ARRIAUNDIA, de diez y seis áreas y cincuenta y ocho centiáreas. Linda por Norte con carretera que se dirige a Alduncin; por Sur con regata que baja de Alduncin; por Este, con helechal de la casa Titillabaja y por Oeste con robleal de Alduncin."*

*Inscrita al Tomo 3.079, libro 35, folio 150, finca número 791-N, inscripción 5ª.*

*Es decir, estaríamos ante un helechal que figura en catastro como Comunal.*

*El criterio seguido para determinar la titularidad de los terrenos de estas características se basa en la Ley 388 de la Compilación del Fuero Nuevo de Navarra, que determina que bajo la denominación de "helechal", cuando este término no aparezca empleado exclusivamente para expresar la naturaleza o destino de una finca, se entienden los derechos de aprovechamiento de las producciones espontáneas de helecho de montes comunales.*



*Asimismo, el artículo 118 de la Ley Foral 6/1990 de 2 de julio de la Administración Local de Navarra, determina que la inclusión de un helechal en las hojas catastrales de las Entidades Locales no prejuzga ninguna cuestión de propiedad, pero por sí sola constituye una prueba de posesión del terreno y de los demás aprovechamientos a favor de aquellas Entidades. Mientras éstas no sean vencidas en juicio ordinario declarativo de propiedad, serán mantenidas en su posesión.*

*Este criterio se ha seguido por extensión, según doctrina judicial asentada al respecto, para otro tipo de aprovechamientos como fresnales, castañales, jarales, etc.*

*Por lo tanto, las fincas helechales, castañales, fresnales, robledales, etc., deben ser considerados comunales por el sólo hecho de serlo, en las que los particulares tienen derecho al aprovechamiento de la producción espontánea del suelo, con la adición en su caso del fruto del arbolado (castañas, bellotas...) y de las varas, ramas y piquetes para cierres, pero en ningún caso debe considerarse derecho sobre la propiedad del terreno.*

*No se tiene constancia de que dicho helechal haya sido objeto de convenio transaccional o de desafectación de su carácter comunal.*

*A la vista de lo anterior, esta Sección considera que la finca nº 1 de la escritura de fecha 3 de octubre de 1952, helechal en el paraje de Alduncingo-Arriaundia, es un terreno comunal sobre los que el particular únicamente tendrían un derecho de aprovechamiento.*

*En consecuencia, y en lo que se refiere a las competencias de esta Sección, **no procede acceder** a la modificación catastral solicitada.*

*Pamplona, 14 de marzo de 2018*

*LA JEFA DE LA SECCIÓN DE COMUNALES*

*Miren Esevenri Roda*

Udalbatzak, eskaera eta Herrilurretako Atalak egindako txostenean oinarrituta, aho batez erabaki du, 8 poligonoko 18 partzela eta 4 poligonoko 224 partzelaren zatia, Francisca Macazaga Goizuetaren izenean katastroan ez jartzea.

### **3.2. TERESA LOPEZ DE MUNAIN.**

Teresa Lopez de Munainek, “EA BADA, nola esango dizut....” antzezlanaren berri eman dio Goizuetako Udalari, kultur ekintzak antolatzean ekimena aintzat hartzeko eskatuz.

Udalbatzak eskaera aztertutik, antzezlanaren jakinaren gainean gelditzen da, eta kultur ekintzak antolatzen dituenean, hurrengo egitaraurako kontutan izango da.

### **3.3. MAITE ORTIGOSA. Alokairu Kontratuaren etetea.**

Maite Ortigosa Miral, Goizuetako Udalera zuzendu da, eta adierazi du, Goizuetako Santa





Maria Kaleko etxebizitza objektu dela Udalarekin sinatua daukan alokairu kontratua bertan behera utzi nahi duela; ondorioz dagokion diru-transferentzia eteteko aginduko diola bere aurrezki kutxari.

Udalbatzak eskaera azterturik, aho batez erabaki du, alderdi batek eskatuta, alokairu kontratuaren bi alderdien arteko borondatezko deuzestapena onartzea.

### **3.4.CRISTOBAL HERNANDEZ GIL. Porrostako Errekako egur hondakinak**

Cristobal Hernandez Gil, Errateta Etxeko bizilaguna, Goizuetako Udalera zuzendu da eta adierazi du, Porrostako Errekan, Antokako zubitik gora, Lurgorrita eta Egiaundi izeneko parajetan egindako baso lanen ondorioz, gutxinez 2 metro altuera eta 6 metro luzera duen egur hondakinez, piñu enborrez eta adarrez ur presa bat sortu dela. Azken egunetako ekaitzak direla, eta presa honek sortu dezaken arriskua ikusita, jakinik bere azpian bi zubi eta baserri bat daudela, Udalari beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatu dio.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du, lehenengo eskerrak ematea eskatzaileari egoeraren berri emategatik. Aldi berean, aho batez erabaki da, eskatzaileari jakinaraztea, mendizaina jakinaren gainean jarria dagoela eta baso lanak egin dituen mendi kontratistari garbiketa egiteko eskatu zaiola, ondorengo asteotan egingo direlarik garbiketa lanak.

### **5.-GOIZUETAKO KOMUNALEKO IXKIBI ETA BESTE PARAJE EZBERDINETAKO ETA TANTAILEPO, OKILLEGI, EPELEKO TXOKOA, GAINZIN-PARAJEETAKO BASO-USTIAPENAREN SUBASTA ETA PROZEDURAREN JARRAIPENA.**

2018ko maiatzaren 30ena, Goizuetako Udaleko Iragarki Oholean argitaratu zen "Ixxkibi eta beste paraje ezbedinetako eta Tantailepo, Okillegi, Epeleko txokoa, Gaintzin" parajeetakoko egur lotearen enkantea.

2018ko ekainaren 14an bukatu zen eskaintzak tarteratzeko epea.

2018ko ekainaren 18an, eguadiako 15.30tan, kontratazio mahaia bildu zen, aurkeztutako eskaintzak irekitzeko asmoz. Proposamenik ez dela aurkeztu ziurtatzen da  
Kontratazio mahaiak subasta hutsik deklaratzeko proposatzen dio kontratazio organoari.

Udalbatzak, kontratazio mahaiaren aktaren berri eduki ondoren Ixxkibi eta beste paraje ezbedinetako eta Tantailepo, Okillegi, Epeleko txokoa, Gaintzin" parajeeko egur lotearen enkantea hutsik deklaratzeko erabaki du aho batez.

### **6.- 2018KO AURREKONTUAREN ALDAKETA 05/2018. HASIERAKO ONARPENA**

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaietan garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta



aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, zera agintzen du Alkateak:

2018 ekitaldiko aurrekontuaren aldaketa egiteko dagokion espedientea izapidetzea, eta hau gauzatu ondoren, aurrekontuaren aldaketaren onarpenerako Udal Batzarrean aurkeztea agintzen du.

Horretarako, Alkatea, honako kontuhartzailearen txostenean oinarritzen da:

2018 urteko aurrekontuaren 05 aldaketa modu honetan egiten da

### **KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA.**

*Miriam Arozena San Miguelek, Goizueta Udaleko Ordezko Idazkari-kontuhartzailea naizen honek, 2/1.995, martxoaren 10eko, Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 270/1.998, irailaren 21eko, Foru Dekretuak, 2./1.995 Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duenak agintzen duenaren arabera, txosten hau egiten dut:*

### **TXOSTENA**

*Aurrekontua aldatzeko aplikagarri den legedia.*

*2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, beharrezkoa ikusten da, kreditu berezi bidez, ondoren aipatzen diren aurrekontu aldaketak egitea*

*2018 urteko aurrekontuaren aldaketa modu honetan egiten da:*

### **AURREKONTUAREN ALDAKETAK 05/2018**

*\* Kreditu berezia: Kontusaila 1.9200.6820001 Azoka Eraikiaren teiltuaren berritze obra lanak. Zenbatekoa: 20.000 €*

### **Honela finantziatzen da:**

*Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 20.000€*

*Aurrekontuaren aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura:*

- 1.-Udalbatzak behin behineko onarpena*
- 2.-Jendaurreko erakustaldia, 15 eguneko epean Udaleko iragarki oholean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. 15 eguneko epe honetan interesatu denak aurrekontuaren aldaketaren espedientea aztertu dezake eta ongi deritzon erreklamazioak egin ditzake.*
- 3.-Erreklamazioak egongo balira, Udalbatzak, hauei erantzuna emango die, eta behin betiko onartuko du aurrekontua.*
- 4.-Erreklamaziorik ez balego, aurrean aipatutako 15 eguneko epea pasatzen denean, behin betiko onartua dagoela aurrekontuaren aldaketa ulertuko da.*
- 5.-Behin betiko onartutako aurrekontuaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da*

*Beharrezko ondoriotarako,*

*Goizuetan, 2018ko ekainaren 18an*



IDAZKARIA.

*Sin: Miriam Arozena San Miguel*

Udalbatzak, egin beharreko aldaketak aztertu ondoren, aho batez, 2018 ekitaldiko aurrekontuaren 05/2018 aldaketei, hasierako onarpena ematea erabaki du, aldi berean legeak agintzen dituen izapidetzak egitea erabaki da.

## **7.- MOZIOA: LGTBI+ PERTSONEN SEXU-ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Honako mozioa aurkeztu zaio Udalbatzari, aztertu eta onartu dezan.

### ***GOIZUETAKO UDALEKO BATZARRAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EKAINAK 28, LGTBI+ PERTSONEN SEXU-ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA***

*49 urte igaro dira Stonewalleko errebolta zerotik. 1969ko ekainaren 27tik 28rako gauean New Yorkeko polizia Stonewall izeneko pub batean sartu zen transexual, lesbiana, gay eta bisexualak atxilotzeko. Euren eskubideak defendatzeko elkartzen ziren lehen aldia ez bazen ere, data hori mugari bihurtu zen diskriminazio- eta ikusezintasun-testuinguru batean: LGTBI+ pertsonen euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzeko antolatuta zuten borrokan katalizatzailerik bat izan zen.*

*Orduz geroztik ekainaren 28an LGTBI+ pertsonen Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna ospatzen da: dibertsitatea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere.*

*Gaur egun oraindik ere LGTBI+ pertsonen mota guztietako diskriminazioak jasaten dituzte, askotan indarkeria barne: sexu-orientazioagatiko eta/edo genero identitateagatiko gorroto-delituak, heterosexualitatea arau gisa inposatzen dela agerian uzten duten hainbat diskriminazio eta eraso, trans kolektiboaren patologizazioa, trans diren haur eta nerabeentzako arreta egokirik eza, eta abar. Ez dugu ahaztu behar bidegabeko errealitate diskriminatzaile hori askoz handiagoa dela pertsona askorentzat euren arraza, jatorria, egoera administratiboa eta/edo sozioekonomikoa eta abar direla medio. Oraindik ere hori gertatzen ari da gure gizartean, eta gure betebeharra da LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazio mota oro ezabatzea lan egitea. Araudiari eta ekintza espezifikoak martxan jartzeari dagokienez aurrerapausoak eman diren arren, oraindik lan asko egin behar da LGTBI+ pertsonen euren eskubide guztiez egun guztietan goza dezaten defendatzeko eta sexualitatea eta generoa bizitzeko modu eta adierazpen guztien normalizaziorantz beharrezko gizarte-aldaketa gauzatzeko.*

*Egun honetan ezin dugu ahaztu Euskal Herrian mugimendu LGTBI+ eta feminista osatzen duten pertsona guztien borrokaren aldarrikapena, izan ere, eguneroko zereginean eta diskriminazio mota oro ezabatzea lan eginez, gizarte benetan bidezkoa, igualitarioa eta feminista eraikitzea funtsezko ekarpena egiten baitute. Euren borrokari laguntzeko gure konpromiso politikoak egunerokoa izan behar du, ez soilik adierazpenak eginez, baizik eta gizarte-ordezkariekin adostutako ekintzak martxan jartzeko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak konprometitzu, betiere ikuspegi feminista eta eraikitzailearekin.*

*Funtsezko giza eskubideez, norberaren identitatea definitzeko eta identitate hori askatasunez bizitzeko eskubideaz ari gara.*



*Horregatik, Batzar Nagusi honek konpromisoa hartzen du honako hau egiteko:*

*1) Bere politiketan sexu-aniztasuneko eta genero-identitateko ikuspegia sartzea, eta zehazki:*

- ! Diskriminazioaren prebentziorako eta identitate eta praktika sexu-afektibo ez heteroarautzaileak, askotarikoak eta askatasunean egindakoak garatzeko ekintzak barnean hartzen dituzten baterako hezkuntza feministako programak martxan jartzea, beharrezko baliabideak bermatuz.*
- ! Diskriminazioa jasaten duten LGTBI+ pertsona guztiei, eta bereziki beren sexu, arraza, jatorri, egoera administratibo eta abarregatik kalteberatasun handiagoko egoeran dauden pertsonen laguntza eskaintzea.*
- ! LGTBI+ adineko pertsonen arreta egokirako zerbitzuak sustatzea.*
- ! Gure eskumenen esparruan, beste leku batzuetatik iristen diren eta beren sexu orientazioaren eta/edo genero-identitatearen ondorioz jazarpena jasaten dutela adierazten duten pertsona guztientzako arreta osoa eskaintzea.*
- ! Mugimendu LGTBI+ eta feministekin etengabeko komunikazio- eta lankidetzakanalak mantentzea, eta ekimen bateratuak martxan jartzeko baliabideak erraztea.*
- ! Eta abar.*

*Herritarrei dei egiten diegu, mugimendu LGTBI+ eta feministek gure udalerrri eta hirietan deitzen dituzten ekintzetan parte har dezaten.*

*Denontzako askea eta bidezkoa den Euskal Herri baten alde*

Udalbatzak mozioa aho batez onartu du.

## **8.- ALKATEAREN EBAZPENAK**

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2018-060tik 066ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

-60 zenbakia: Euskara Zerbitzua, maiatzaren 29an Batzar Aretoa erabiltzeko baimena

-61 zenbakia: Euskal Herria Mendi Erronka, 25 hesi erabiltzeko baimena

-62 zenbakia: Goizukoop Kooperatiba Elkarte, ekainaren 2an eskolako jangela erabiltzeko baimena

-63 zenbakia: 2018ko aurrekontuaren 4/2018 aldaketa. 2017ko Kreditu inkorporazioak

-64 zenbakia: Basauntz Ehiza Elkarte, ekainaren 9an Ganbara erabiltzeko baimena

-65 zenbakia: Andoni Lizarralde, ekainaren 20 eta 27an oinetakoak saltzeko postua



GOIZUETAKO UDALA

jartzeko baimena

-66 zenbakia: 4 poligonoko 26 partzelan portxea eraikitzeko xehetasun azterlanaren hasierako onarpena

### **9.-ESKARI ETA GALDERAK**

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean alkateak bukatutzak eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut